

HONDARRIBIKO UDALA

hondarribia

herri aldizkaria

Hondarribiko Udala - Euskara Batzordea

254 2013ko Urtarrila

BROKANTE ETA BILDUMA AZOKA, IGANDE GOIZ PASARAKO AUKERA EDERRA

NAGUSIAK

- 03: Herrian barrena
- 12: Bordari-Satarka
- 15: Gure GKEak
- 16: Elkarrizketa
- 18: Erreportajea
- 23: Historiaren leihotik
- 29: Ganbarako Kutxa miatzen



Merkatu Txikia

Peugeot 206 HDI 2.0 salgai, oso zaindua. Urdin metalizatua, 2004 urtekoa, 117.000km, extrak. 4500€ negoziagarriak. 652705804 (Mikel)

**Nola parte hartu MERKATU TXIKIAN?**

1-Iragarkiak gehienez **20 hitzekoa** beharko du izan, eta telefono edo korreo elektronikoa, derrigorrez, izango ditu barne.

2-Testua HILERO bidali beharko da, errepikatzekoa bada ere. Hilean jasotakoak bakarrik aterako dira hurrengo alean.

3-Hondarribia Aldizkariak ez du inongo erantzukizunik hartuko salmenta, erosketa edo trukeetan gertatzen diren arazoaren gainean, eta iragarkien egiazkotasunaren erantzule bakarra, igorri duen pertsona izango da.

Bidali zuen iragarkien testua (publikatuko dena, telefono edo e-postarekin) eta honekin batera, zuen izen-abizenak, **hondarribia.aldizkaria@gmail.com** helbidera; edo bestela, postaz, **Gabinete de comunicacion ZIF 2008 s.l. – Auzolan kalea, 2 20303 Irun** helbidera ("Merkatu Txikia" gutun-azalean edo mezuaren izenburuan jarrita, beti).

OHARRA: Hurrengo alerako iragarkien epe muga otsailaren 12a izango da.



2013ko Urtarrila // 254 zenbakia //
L.G.: SS 122/86

Argitaratzailea: Euskara batzordea
Erredakzioa: Xabier Sagarzazu
Diseinua: Leire Ruiz de Angulo
Koordinatzailea: Zif Comunicacion

Kolaboratzaileak: Naroa Susperregi, Cristina Ramos, Koldo Ortega, Miren Arrigain, J.M Mendizabal, Fermin Olaskoaga, Floren Portu.
Inprimategia: Antza.

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien ondorioak.



NON ESKURATU AHAL DA HONDARRIBIA? Honako puntu hauetara jo beharko duzu

Formatu digitalean etxean jasotzeko, bidali korreo elektronikoa:

euskara@hondarribia.org helbidera

SAN PEDRO KALEA

- 1-Javier Optikoa San Pedro, 6
- 2-Kai-Alde Kafetegia San Pedro 10
- 3-Ondarribi Taberna San Pedro, 31
- 4-Eukeni Optika San Pedro 57
- 5- Lan Kide Aurrezki Kutxa San Pedro 7
- 6 Ignacio Taberna, San Pedro 20
- 7-Kutxa, San Pedro kalea San Pedro 5
- 8-Ogi-berri Okindegia, 69
- 9-Goxodenda San Pedro 79
- 10-Xaia delikatessen
- 11-Ardoka Taberna
- 12- Txantxangorri Taberna
- 13.- Olearso Liburudenda
- 14- Gaur Liburudenda

BERNAT ETXEPARE

- 15-Arbelaiz Goxotegia 1

MATXIN DE ARZU

- 16- Marian Urdaitegia, 3
- 17- Itsas Etxea Anbulategia
- 18- Orube Higiezen Agentzia, 2
- 19-Joski Arropa Denda, 18
- 20-Podología Unai Ortiz, 10

ITSASARGI Kalea

- 21- KAIALDE jatetxea
- 22- Kaiela Kafetegia

ZULOAGA Kalea

- 23-Elduayen, MAPFRE, 8
- 24-A-dos, Arropa denda 11

SANTIAGO Kalea

- 25-Aliprox Sunsundegi, 17
- 26-Inmobiliaria Etxebeste
- 27- Aginagalde Aholkularitza, 10

ALMIRANTE ALONSO

- 28-ARRETXE Txirrindak 7
- 29-KAIZAR
- 30- Uxo Taberna

AMUTE

- 31-ONDARE Kafetegia Amute, 6. behe
- 32-Carrocerías Amute
- 33- Manolo Jatetxea

ALDE ZAHARRA

- 34-Batzoki, Damarri
- 35 Etxeberria Taberna C. Mayor, 27
- 36- Sebastián Jatetxea
- 37-Danontzat Taberna, Denda kalea, 6
- 38-Larra Taberna, Damarri
- 39- Aise Gune Psikopedagogiakoa Juan Laborda, 2
- 40-Udaletxea BAZ

SABINO ARANA

- 41- MK, 12 Hertz Klinika

TXIPLAU

- 42-ONDARTZ EDERRA Biberoak
- 43-MARIÑEL BURDINDEGIA
- 44-Margolanak Txingudi
- 45-Pilar Peña Dantza Eskola

BESTE ZENBAIT

- 46-Arbelaiz Instalazio Elektrikoak, Erre-kabea 2 behe
- 47- Eguzki-lore Kafetegia, Donostia Kalea
- 48-Kilker Lorazaintza, Errazkinenea, 2
- 49- Arratibel Okindegia, Letxunborro Ibilbidea
- 50-Ardora Jatetxea Foru kalea, z/g
- 51-Endanea Biberoak Arkoll, 7
- 52-Beko Errota (Jaizubia, 5
- 53-Arraun elkarte Puntala
- 54- Arraun etxea Jatetxea
- 55-Arroka Berri Higer Bidea, 6
- 56- Arrantzaletxe Kofradia Jatetxea Ramon Iribarren kalea
- 57-Faro Higer Jatetxea
- 58-Kirol Kaia
- 59-Ballestanea Jatetxea, Arkoll auzoa z/g
- 60- Hondartza Kiroldegia
- 61- Iza Liburudenda
- 62- Soko Liburudenda
- 63- Joxean Harategia. Harresilanda, 5

IRUN

- 64-Lecuona Aholkulariak, Hendaia, kalea, 7 bajo

Gure eskerrik beroenak aldizkaria banatzen laguntzen diguten establezimenduei



EGURALDI ETA GIRO POLITA IZAN DUGU AURTEN GABONETAKO EKITALDI GUZTIETAN

ARGAZKIAK: Xabier Sagarzazu




Errepaso txiki bat egin dugu, argazkietan.

Gabonak pasa berri ditugu eta herrian izan da ekitaldi ugari, ohikoak batzuk, berriagoak besteak, baina urtero bezala, umeez izan dute protagonismo berezia.

Santo Tomas eguna eguzkitsu esnatu zen eta jende ugari hurreratu zen Arrantzale Auzo ondoan egin zen azokara. Argazkietan ikustea besterik ez dago, herri kirolen erakustaldian zegoen publiko ugaria!

Abenduaren 23an, Mari Domingi eta Olentzero ume guztien eskutitzak jasotzera etorri ziren, Higer merkatarien elkarteak gonbidatuta. Ilara ederrak sortu ziren Gipuzkoa plazan! Eta hurrengo egunean, Gabon Gau egunean, kanturako



SANTO TOMAS ETA GABONAK 2013

ARGAZKIAK: Xabier Sagarzazu



zaletasuna bizirik dagoela erakutsi ziguten ume, gazte zein helduek ere, egun osoan zehar. Argazkiak dira horren froga.

Abenduaren 29an, Sport Mundi elkarteak bere I Gabonetako Kontzertua antolatu zuen, Caritasen alde. Portuko eliza bete-bete zegoen eta bi egun geroago, Sport Mundiren San Silbestrearekin ia 1.600 lagunek agurtu zuten urtea, korrika eginaz.

Aurretik, hilaren 30ean, herriko ohitura zaharra den Jaiotza Biziduna berritu zen, parte-hartze eta publiko ugarirekin.

Eta Gabonak ixteko, nola ez, Meltxor, Gaspar eta Baltasarren bisita jaso genuen. Haien postaria urtarrilaren 4an etorri zen eta hurrengo egunean heldu ziren hiru magoak, Mendelu eta Amutera zaldi gainean, Portura gero, itsasontziz. Hermanadetik umeak agurtu eta desfilea egin ondoren, Jesus Haurra gurtu zuten.



SANTO TOMAS ETA GABONAK 2012

ARGAZKIAK: Xabier Sagarzazu



Instalazio Elektrikoak
ARBELAIZ

elektrizitatea orokorrean 649 50 57 35
649 33 16 09

Konpromisoa gurea gurea arbelaiz-jm@hotmail.com

Caser
CASER RESIDENCIAL
BETHARRAM

902 300 390
www.caserresidencial.es

**HONDARRIBIAN ONDO ATENDITUTA
SENTITZEAREN SEGURTASUNA**

Zaintza profesionalenak, merezi duten errespetuarekin.

SANTO TOMAS ETA GABONAK 2012

ARGAZKIAK: Xabier Sagarzazu / Festak.com




Tel: 943 64 49 39
Mella Ibilbidea, 5
20280 Hondarribia (Guzpizcoa)

ARRAUN ETXEA
MARISQUERIA
RESTAURANTE
Itsaski Jatetxea




Orube
Promociones - Eragintzak s.l.

Asagunaga Bidea 2
Mamut eraikineko bulegoak, 6. solairua, 2. ezp.
20140 Oñartzun
Tel.: 943 49 38 62 / Fax: 943 26 06 01

Makis Artzu E
20280 Hondarribia
Tel.: 943 11 41 14

SANTO TOMAS ETA GABONAK 2012

ARGAZKIAK: Xabier Sagarzazu / Mikel Jauregi



**L
BAR
B
B
T**

Eguneko menu / menu berezia

- txakur
- Biscuits
- Sandasak
- Kaka
- karrugetak
- Pixer Koxintxak



Durrantzi Kalea, 4
Tel: 943 53 70 11
20280 HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA
Lanzabal, 14 943 34 01 82
DONOSTIA
Zabaleta, 54 943 28 65 72
HONDARRIBIA
A. Alonso, 7 943 64 27 77
Mendelu, 17 943 64 70 58

ZULOAGA-ITSASARGIKO LANEN BIGARREN ZATIA MARTXAN DA ETA GABARRARIKOAK, HASTEAR



GABARRARI KALEAN LASTER HASIKO DIRA LANAK X.SAGARZAZU

Aste Santura bitarte, Herman-dadetetik Mapfrerako tartean eta Itsasargiko alde batean egingo da lan eta trafiko aldaketa berriak martxan izango dira

Gabonetarako garaiz amaitu zuen Urb-ycolan enpresak Zuloaga kalea berriritartzeko eta bertako ur hodiak berritze-ko egin beharreko lanen lehenengo zatia, Hermandadetetik hasi eta Hondarribia parerainoko tarte horretan.

Gabonak pasa eta berehala lan hauen

bigarren zatia hasi da. Orain, obra Hermandadetetik Mapfre aseguro etxearen bulego parera egiten ari dira, alde batetik, eta Itsasargi kalean bestetik, honen alde batean, espigoi aldetik datorren trafikoari leku egin ahal izateko beti ere.

Obraren aldi berri honek trafiko aldaketa berriak ekarri ditu. Hala nola, San Pedro kaletik ateratzeko, Itsasargi kale hasieran dagoen biribilguneraino joan (ezin baita Jauregui hotelaren paretik buelta eman) eta handik Matxin Artzu kalea hartu beharra dago, besteak beste.

Aste Santura arte iraungo du lan hauen fase berriak, baina gero, uda arte luzatuko dira, Mapfretik Kai Aldera eta Itsasargi kalearen beste espaloia-aren aldean.

Honetaz gain, laster hasiko den beste obra bat esleitu du Udaltzat-ak, 1,8 milioiko aurrekontuarekin. Obra hori Gabarrari kalearen berriritartze-arena izango da eta zonalde honek aspaldi beharrezkoa zuena. Otsailean zehar hasiko dela kalkulatu-zen da eta 18 aste-ko iraupe- na izango du, Construcciones Campezo enpresaren eskutik.



JAVIER
OPTICO

zure begiak hobenera monezi dute

Optika eta optometriaren diplomadunak
maiztasun optikoa eta kontaktak
L. Aguirre - Iñaki

San Pedro, 6 • Tel. 943 64 37 73
20280 HONDARRIBIA



PIZZERIA

Portutxo

PORTUTXO
PIZZERIA

ALMIRANTE ALONSO 10 • 943 645 655
20280 HONDARRIBIA

UDALBATZAK 16 MILIOIKO AURREKONTUA ONARTU DU 2013. URTE HONETARAKO



GREGORIO BERROATAREN GOGORATU ZUTEN UDALBATZAN, MINUTUKO ISILUNEAREKIN X.SAGARAZU

Oposizioko taldeen zenbait emendakin gehitu zaizkio gobernuaren proiektuari eta inbertsioen artean, San Pedro kaleko berriritartzea izango da nagusia

Hondarribiko Udalbatza abenduaren 20an bildu zen 2012. urtean azken aldiz, eta beste zenbait gairen artean, 2013. urte honetarako 16 milioiko aurrekontua onartu zuen EAJ, PSE, PP eta Hamaikabaten aldeko botuarekin eta oposizioko talde nagusia den Bildu koalizioko bost zinegotzien abstentzioarekin.

Bilkura, egun gutxi lehenago hil zen Gregorio Berrotaren omenezko minutuko isilunearekin hasi zuten eta ia hiru orduko eztabaidaren ondoren, udal gobernuak beste zenbait alderdiren babesa lortu zuen aurkeztutako aurrekontuarentzat.

Horretarako, oposizioko talde guztiek aurkeztutako artetako zenbait emendakin onartu ziren, aurrekontuari 289.500 euro gehitu zizkietenak: Udal ondasunen inbentarioa egiteko, auzoetako jaietarako diru gehiago jartzeko, Amuteko auzo elkartearentzat (egoitzan obra egiteko eta ekital-

diak antolatzeke), San Markos parkean hobekuntzak egiteko, Emekiren Puntu Beltzen Mapako ekintzak burutzeko, Enplegu Planaren ekimenak martxan jartzeko, Mendeluko auzoaren egoerari buruzko azterketa egiteko, etxebizitzaren zaharberritzean lan egiteko edo Irlandarrek Setio Haundian izan zuten paperari buruzko liburu bat argitaratzeko.

Aurrekontuko inbertsioei dagokienez, San Pedro kalearen berriritartzea da nagusia, lau milioiko aurrekontuarekin eta irailean hasteko aurreikuspenarekin.

Aise
Zailtasunak eskolan?
Maila guztietako laguntza
(HH, LH, DBH, Babc)

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala
Satarika kafea 2 (Gipuzkoa plaza)
20280 HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

BAR ONDARRIBI

AUKERA BIKAINA
BANDERILA ETA KAXUFLEK

San Pedro kalea, 31
Tel.: 943 64 27 05
20280 HONDARRIBIA

BIGARREN IZAN DA HONDARRIBIKO ZORTZIKOA EGIN BERRI DEN GIPUZKOAKO TXAPELKETAN



URREZKO DOMINA LORTU DUEN JUBENIL MUTILEN ZORTZIKOA X.SAGARZAZU

Gogoz ekin diote gure arraunlariek aulki mugikorreko denboraldiari eta trainerua puntuan jartzeko, udara arte prestakizunaldi luzea izango dute zain

Aureko hilabetean gure aldizkariaren azalera ekarri genuen Hondarribia Arraun Elkarteak burutu berria zuen ia-zko bandera guztien bedeinkapena.

Bada jai ospakizun hori egin eta ia berehala, berriz ere konpetizioan ditugu elkarteko maila guztietako kirolariak.

Izan ere, hasi da 2013. urteko aulki mugikorreko arraunketaren denboraldia.

Urtarrilaren 12an, Hondarribian bertan egin da, Bidasoko uretan, distantzia luze-ko Gipuzkoako Txapelketa, zortzi arraun elkarre, 55 ontzi eta maila guztietako 310 kirolariren parte-hartzearekin.

Gure arraunlariek, beste behin ere, oso maila ona eman dute denboraldi hasierako hitzordu garrantzitsu honetan. Senior mailan, Oriorekin gogor leihatu ondoren, hondarribiarrak bigarren izan ziren, eta beste

maila eta ontzi modalitatetan, guztira beste zortzi domina lortu dituzte gu-reek: urrezko lau (kadete eta jubencil mutilen zortzikoekin, neska kadeteen lau *coupleak* eta neska jubencilen biko *coupleak*); zilarrezko beste lau (aipatutako mutilen zortziko seniorrak, tartean) eta brontzezko bat.

Hasiera on onekin ekin diote hondarribiarrek denboraldiari eta aulki mugikorrari lehiatzearekin batera, udara eta traineruari begira prestakizunaldi luzea dute zain. Animoak eta zorionak denei!



BIZIAREN KONTUAK KOLOREZTATZEN**SATARKA OLERKI LEHIAKETA -B Maila****3. Saria - Hondarribiko egile onena**

Lanaren izena: Bizitzaren kontuak koloreztatzen

Egilea: Inge Salaberria Muñoz

1.-Natura sentiarazten utzi...

Lehoi bihotz,
kolore biziz jantzia
aho bete hortz
aharrausi egiten hasia.

Negu hotz
galtzen du bizia
desertua bilakatzeraino izotz
hortzek ezin moztu haria.

Txoriak moko motz,
zuhaitzean egin du kabia
ogibide moduan arotz,
bertan sortzekotan bere sendia.

Kolore-koloretsu udaberria
lore, arantza eta sasiak
lokartu da ibai ertzean lamia
haren ahots indarra hain zen handia.

2.-Bidaia

Joan-etorriak gora, nahiz behera
azkar igo beharko trenera
ilusioa piztu zait aspaldiko partez
ezagutuko ote dut beste mundu bat suertez?

Forma eta kolore ezberdineko eraikuntzak
aire heze eta itsaskorra
hiria inbaditzen du soinu bortitzak
ezagutuko ote dut hemengo pentsamendu orokorra?

Pertsona ilunek betetzen dute hoteleko harrera
elegante eta serio mantentzen dute haien jarrera
zurezkoak dirudite berez
ezagutuko ote dut moduren bat haien aurrean jartzeko
parez pare?

Ohean etzan ondoren joan zaizkit hitzak
momentu honetan da nire jarrera baikorra
Euskal Herrian antzera hemen ez daude dantzan haritzak
ezagutuko ote dut nagoen leku honetako kultura, hizkuntza,
nahiz xarmaren altxorra?



Unai Ortíz

kirurgia - ginekologia
ortopedologia - urologia
ortopedologia bideko mikela
biomekanika
- esploración biomecánica
- biomecánica

Makur de Arzu 10 - 2.º piso
20.230 HONDARRIBIA

Tel: 943 111 940
www.unaiortiz.com



Sebastian
RESTAURANTE
Jatetxea

Hale Nagusia, 11 - Tel: 943 64 01 67
20200 HONDARRIBIA
restaurant@sebastianhondarribia.com
www.sebastianhondarribia.com

3.-Koloreen erreinuan dantzan

Orlegi, maisutzat du natura.
Hori, limoiaren barnean eduki nuen abentura.
Arrosa, neska guztien kontura.
Gorri, musukatzen ari den ezpainaren piura.
Dantzan nabil koloreen erreinuan.

Urdin, Afrikak falta duen ura.
Marroi, ausartien abentura.
Zuri, erabat usatzen du ardura.
Urre, errege motelen koroen apaindura.
Dantzan nabil koloreen erreinuan.

Beltz, erlazio baten haustura.
More, borrokatu ondoren zigilua jartzeko ardura.
Gris, lainoak estaltzen duenean padura.
Dantzan nabil koloreen erreinuan.



“MIMARTE”

Alkoholaren gehiegizko kontsumoa prebenitzeko programa.

Hondarribiko DBHko ikastetxeekin elkarlanean eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak burutu du ekintza hau pasa den abenduan.

Joan den abenduan Hondarribian DBHko 2. Mailan dauden ikasleek antzezlan hau ikusteko aukera izan zuten. Hilaren 3an Ama Guadalupekoa Ikastetxeko gimnasioan elkartu ziren bertako ikasleak San Jose Ikastetxeko ikasleekin batera eta abenduaren 14an Talaiaiko ikasleekin bildu zen Peter Roberts.

Peter Roberts-ek, aspaldian Donostian bizi den mimo eskoziarrak, urteak darama proiektu hau aurrera eramaten. Alkoholaren gehiegizko kontsumoa da antzezlanaren ildo nagusia eta mimoaren artea, magia, umorea eta ikuslegoaren parte hartzea erabiltzen du Peter-ek gazteriak alkoholaren kontsumoaren inguruan go-goeta egin dezan.

Helburua da, gazteak antzeztutako eszenekin identifikatuta sentitzea eta era berean alkoholaren gehiegizko kontsumoak sor ditzakeen osasun-arazoei buruz hausnarketa egitea.

Ikuskizuna ikusteaz gain gazteak gaiarekin jarraitzeko aukera izango dute irakasleei helarazten zaielako lan-gida bat non be-



raiek beharraren arabera fitxa ezberdinak burutzeko aukera duten.

Programa hau DBHko 2. mailako ikasleei zuzentzea Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuko profesionalen erabakia da. Hain zuzen ere, adin hauetan sortzen diren kontsumo goiztiarrekin arduratuta gaudelako. Izan ere, garrantzitsua da gazteek zein helduek kontuan hartzea kontsumo goiztiar hauek gazteen garatze prozesuan eragin kaltegarria dutela.

Halaber, esan beharra dago ikastetxeetako eta ikasleen jarrera programa honekiko oso ona dela. Eskertzekoa da ikuskizuna aurrera eramateko beraien baliabideak eskaintzea eta beraien antolakuntzan sortzen diren trabak gainditzea.

Proiektua edota Peter hobeto ezagutzeko: www.teatromimo.com



**zure ideiak
gure lanak**

Berrikuntzak

Hamaika

943646412
645987836

Julen eta Pabx Golkoetxea
hamaikalan@gmail.com
www.hamaikalan.wordpress.com



EL DU AYEN
ZERBITZUAK, S.L.



Zuloaga kalea 8 / Tel.: 943 641156 / Faxa: 943 641008
HONDARRIBIA / www.elduayen.com

CALCUTA ONDOAN



ARANTZA LIZEAGA HONDARRIBIARRA, EZKERREAN, ELKARTEAREKIN INDIARA EGINDAKO BIDAIA BATEAN UTZITAKOA

LAN-EREMUAK ETA HERRIALDEAK

*Calcuta Ondoan*en xedea, laguntza humanitarioa ematea eta garapenerako proiektuak sustatzea da, Indiako pertsona eta taldeen sustapen integralerako, beti ere gizakiaren eta herriaren nortasuna eta erlijioa errespetatuz eta giza eskubideak eta genero berdintasuna bermatuz.

PROIEKTUAK ETA PROGRAMAK

*Calcuta Ondoan*en lana 1999an hasi zen Calcutan eta ordutik, bere lan-eremua Indiako beste zonalde batzuetara hedatu da. Laguntza humanitarioko proiektuak laguntzen ditu, kalean ahultasun egoeran dauden pertsona behartsuentzako egoitzen bitartez. Garapen sozioekonomikoa genero ikuspegitik hartzen duten proiektuak dira, emakume hauek bazterketa hirukoitza jasaten baitute, pobre izateagatik, kasta baxukoa izateagatik eta emakume izate hutsagatik.

UDALETIK JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK

2011. urtean, 7000€ Emakumeen ahalduntzea eta dalit komunitatea (India).

2012. urtean, 8500€ Emakume eragilearen alde lanean (India).

HARREMANETARAKO

Telefonoa

943 431 849

Webgunea

www.calcutaondoan.org

Posta elektronikoa

info@calcutaondoan.org

 **LEKUONA AHOLKULARIAK**
1980-TIK AHOLKULARI PROFESIONALAK

angel@lekuona-asesores.com Tel.: 943 579 941
www.lekuona-asesores.com

Hendala Kalea, 7 Bajo - 20301 Irún (Gipuzkoa)

629 82 07 52 HONDARRIBIA

 **ion**

ITURGINTZA - BEROKUNTZA

“ERAKUSLEIHOA BETI SAIATZEN GARA ONDO ZAIINTZEN, JENDEA ERAKARTZEKO TRESNA BAITA”

ANE MIREN OLAIZOLA - HIGER OPTIKA - GABONETAKO ERAKUSLEIHO ONENA

Duela urte eta erdi zabaldu zuen Ane Miren Olaizolak, Kofradia eraikineko behean dagoen Higer Optika. Gabonetako erakusleihoen lehiaketa irabaztea “oso sorpresa atsegina” izan dela aitortu digu, “bai sariaren 450 euroengatik baina gehiago, dendarari izena ematen diolako”. Garai samurrak ez diren arren, Higer zabaldu zuenetik “gustura” ari da lanean bere dendan eta beti, “bezeroen onura bilatuz”.

-Nola egin duzue aurtengo Gabonetako erakusleihoa, lehiaketan lehenengo saria lortu duena?

Iaz, lehenengo urtean, margolari trebea den Lupe Amunarriz nire lehengusuarekin batera, Olentzeroa jarri genuen erakusleihoan, eta jende dexente hurreratzan zela konturatu ginen. Umeak etortzen ziren hari kantatzera, gurasoak seme-alaba txikienekin... Aurten ere Olentzeroa jartzea pentsatu genuen, baina elur azpian kokatzea. Maluten efektua lortzeko kotoi pusketekin proba pila egin ditugu eta azkenean, lortu genuen egokia izatea.

-Zer suposatzen du zuretzat lehiaketa hau irabazteak?

Poz handia eman dit eta ezusteko ederra izan da, egia esan. Ez genuen halakorik espero. Oso eskertuta nago Lupek egin duen lanagatik eta berak du sari honen meritua handiena. Sariaren 450 euroak ez datozkigu gaizki inori garai honetan, baina garrantzitsuagoa da sari honek dendaren izena zabaltzea, komunikabideetan



ANE MIREN OLAIZOLA, BERE DENDAKO ATARIAN XABIER SAGARZAZU

adibidez. Hori dirutan ez dugu ordaintzerik. Eta batez ere, garrantzitsuena, jendea hemendik pasatzean erakusleihora begira egotea lortu izana da.

-Bereziki zaintzen al duzu erakusleihoa urte osoan zehar, ala Gabonetarako egin ohi duzue honelako lana?

Urte osoan zehar zaindu behar da negozio baten erakusleihoa, nire ustez behintzat, oso funtsezkoa da. Erakusleihoa bezero potentziala zure produktuari eta dendan daukazuari adi jartzeko modu bat da. Dendarako sarrera, atea bera bezain garrantzitsua. Publikoaren begia jotzen baduzu erakusleioarekin, pausu ona ematen duzu saltzeko helburuan. Hori bai, erakusleioak eta barruan salgai dagoe-

nak zein zuk ematen duzun arretak, denek baterakotasun bat izan behar dute. Asko zaintzen dugu erakusleioa, gauza desberdinak probatu, argazkiak egin eta nola geratzen den ikusi...

-Zer moduz daramazue negozioa, zabaldu zenutenetik hona?

Optika bat jartzeak oso diru inbertsio inportantea eskatzen du, makineria eta teknologia dexente erabiltzen dugulako, alde batetik, eta salgai asko erosi behar delako, denda denetatik hornitzeko. Baina zorionez, gauzak nahiko ondo joan dira urte eta erdi honetan. Gu pozik gaude egindako lanarekin eta dirudienez, gure bezero asko ere pozik daude lan horrekin, errepikatu egiten baitute.

CARROCERIAS AMUTE

Fundada en 1995

Autoen konponketa orokorra

Mendelu auzoa Tel./Fax: 943 64 11 41
Amute Alde kalea, 19 20280 HONDARRIBIA

K21

Calidad de servicio
K.21 Karrikasak aldatzen
Luzapen Plegakada
No-1765-132

PINTURAS TXINGUDI MARGOLANAK

Lakatzeko kabina
Fatxadetan berritzeak
Barnelanak

Tel. 26 20280 HONDARRIBIA
Tel./Fax: 943 647 344
e-mail: txingudi@telefonica.net

“OSO POZGARRIA IZAN DA NIRETZAT DENDA ZABALDU ETA DENBORA GUTXIRA HONELAKO SARI BAT LORTU AHAL IZATEA”

ASUN SEIN - PASCUA ARROPA DENDA
BIGARRENA GABONETAKO ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETAN

-Zer suposatu du zuentzat Gabonetako erakusleihen lehiaketan saria lortzeak?

Sorpresa galanta izan da, ez baikenuen espero inolaz ere. Azken orduan izena eman genuen eta jendea asko gustatu zaiola ikusten genuen, baina saria lortzea beste gauza bat da. Oso kontentu gaude.

-Nola prestatu duzue erakusleihoa?

Nire koinata den Leire Agirrezabalek eta dendako bazkide den Lourdes Mendizabalen semeak, Oier Gilek, prestatu zuten dena. Oso lan orijinala egin dute, baserriko saskiak, intxaurrak, baratxuriak, porruak eta beste guk aukeratutako arroparekin nahastuaz. Guk aukeratu dugu erakuslehoan jartzea nahi genuen arropa eta ondoren, beraiek moldatu dituzte beste elementu guztiak.

-Zuen dendak ibilbide berria hasi du. Nola doaz gauzak?

Lourdesek eta biok urteak generamatzan hemen, Conchi Pascua urreko jabea zenarekin lanean. Hura iaz hil zen, otsailean eta genero



guztia likidatu ondoren, lokala pixka bat moldatu (margotu, lurra eta argiteria berritu...) eta denda hartu eta zabaldu genuen. Pozik gaude eta poliki-poliki goaz. Gabonetako lehiaketan sariak indarra eman digu eta desiatzen gaude hurrengorako. Inauteriko erakusleihen lehiaketan ere parte hartuko dugu, ari gara horretarako lanean.

“SARIAK BAINO ILUSIO GEHIAGO EGIN DIGU JENDEAK GURE ERAKUSLEIHOA GABONAK ZORIONTZEKO ERABILI DUELA JAKITEAK”

IZASKUN IZETA - ARBELAITZ GOZODENDA
GABONETAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETAN HIRUGARRENA

-Nola eta nork prestatu dizue Gabonetako erakusleihoa?

Nire alaba Larraitzen lana izan da dena. Zerbait egingo zuela esan zidan, “oso gauza sinplea”, garrantzi gehiago eman gabe. Berak ostiralean egiten du lana dendan eta larunbata batean, dendara saru eta ikusi nuenean, txundituta geratu nintzen! Ordu pila eman behar izan ditu dena prestatzeko eta oso ederra gelditu zelakoan nago.

-Zein garrantzi dauka zuena bezalako denda batentzat honelako saria lortzeak?

Diru-sariak eta lehiaketak berak baino, jendeak erakusleihoaren aurrean izan duen erantzunak poztu eta hunkitu nau gehien. Asko etta asko geratu dira hari begira, edo argazkiak egin dizkiote. Eta ikusi dugu eta baten batek ere esan digu argazki hori erabili duela bere lagun eta sendikoei Gabonak zoriontzeko, txartel antzera. Oso polita da hori hala izan dela jakitea, edozein lehiaketa baino gehiago.



-Nola daude gauzak dendan, krisi garai honetan?

Zortzi urte egingo ditu apirilean negozio hau lortu nuenetik. Ez da erraza izan, baina aurrera egitea lortu dugu. Orain ere, kalean izan ditugun obra guztien ondoren, gauzek hobera egin dute eta lana etzaigu falta.



BROKANTE ETA BILDUMA AZOKA, IGANDE GOIZ PASA EDERRA EGITEKO AUKERA KIROL KAIAN



AZOKAREN ITXURA ANIMATUA IGANDE GOIZ BATEAN X.SAGARZAZU

Badira 20 urte inguru gurean brokante eta arte azokak egiten direla. Zumardian hasieran, Jostaldin ondoren eta orain, kirol kaian. Han pasa dugu goiza.

Eguraldi aski petrala bazegoen ere, Minaterakalera hurreratuginen igandegoizean, brokante eta bilduma azoka oso animatua ikusigenuen. Etzirenez postuak ez jendea ere falta.

Bada urtemordoxkabatazoka hauek Kirol Kaiko inguruan egiten ari direla. "Aspaldi hasiziren Zumardian, baina eguraldiarekin eta oso gaizki moldatzen ziren. Horregatik, Jostaldira pasa ginen, babesa izateko, eta gero hona; ikusten denez, jendeak gustuko adu igandegoizak hemen ematea eta postuen aldetik ere, aukeraz balduda. Brokante azoka zena, bildumazaleek osatu dute, eta baita bigarren eskuko arropa edo jostailuak saltzen dituztenek", azaldu digu azoka hauen antolaketa taldeko kide den Miguel Angel Ilzarbek.

Honela, hilean behin edo bitan egin ohi zena, igandero gauza izatera pasa da. Zehazki, hileroko lehenengo bi igandee-tan, brokante eta bilduma azoka egiten da Minateran; eta beste bietan, arte azoka. "Eta noizbait hilabeteak bosgarren iganderik baldin badauka, brokante eta bildumarena berriz ere", argitu digute ekimen hauen antolatzaileek.

Saltzaileen artean, Hondarribiko azoka honek, brokante eta bildumarenak behintzat, irudi ona dauka. "Jende dextente etorri ohi da azoka honetara. Nire



kasuan, Orio, Erretereria, Hernani edo Lezokoen aldean, haxe da gehien saldu ohi dudana lekua. Hori bai, izaten dira ere postua jarteak balio dituen 15 euroko aterako ez ditudana igandeak”, esan digu 71 urteko Plácido García donostiarrak.

Garcia "denetarik" gorde izan du bere bildumetan, txikitatik. "Txanponak, erlojuak, apaingarriak... Etxekogarajeabeteta daukat eta seme-alabek ez dute bilduma hauekin jarraituedogordetzekointeresik. Horregatik saltzen ditut poliki-poliki, eta bide batez, diru pixka bat atera, hilean 414 euroko pentsioarekin nekez bizi ahal naiz eta", esan digu donostiar honek.

Saltzaile beterrak da ere Puri Urretabizkaia, 74 urteko errenteriarra. Bigarren eskuko liburuak, pitxiak, arropa eta beste saltzen du, eta berak egindako ume txikientzako arropa. "Ondo saltzen da Hondarriribiko azokahauetan, baina azken urteetan beherakada nabaritzen da", esan digu saltzaile honek. Edo Plácido García beraren hitzetan: "Krisian gaudenean, ahora eramatekoak dira lehentasuna eta beste gutzia, bigarren mailako beharrak, nabaritzen da".

Erosleak ere ugari dira Hondarribiko brokante eta bilduma azokan., bai bertako jende asko eta baita kanpotik etorritakoak, muqaz bestaldekoak batipat.

“Ahal dudan igande guztietan etortzen naiz. Gaur adibidez, umeari danborra eta elastikoa erosi dizkiot, oso prezio onean. Igandegoiz pasapolita egiteko aukera dira azoka aukera, eta aldi berean, merke eros- teko aukera”, esan digu Esti Rubio honda- rribiarrak.

Mari Jose Salaberria ere maiz etortzen da azoka hauetara. "Denetarik dago he-



GAZTE BAT. LIBURU BATZUEI BEGIRA X. SAGARZAZU



DENETARIK AURKITU AHAL DA BROKANTE ETA BILDUMA AZOKAN X. SAGARZAZU

men. Badir asl gail kusitalotsa ere ematen dutengauza oso zaharrak, bainapen arezi duten beste asko ere. Eta

gainera, herriko jendea ere etortzen da gauzak saltzera. Merezi du", esan digu Mari Jose Salaberriak.



JULEN ZELAIK ETA MARIA RALLOK ARRAKASTA LORTU DUTE EUSKADIKO GAZTE ORKESTRAREKIN



MARIA RALLO ETA JULEN ZELAIA, EGOREKIN DONOSTIKO VICTORIA EUGENIAN EMANDAKO KONTZERTUAN GORKA ESTRADA

'Bi hondarribiar musikari gazte hauek bakarlari modura aritu dira Donostian, Bilbon eta Gasteizen egindako kontzertuetan

EGO, Euskal Herriko Gazte Orkestrak, aurten ere topaketak egin ditu Gabonetan, guztira 55 musikari Eibarren elkartuz. Han entseguak burutu eta ondoren, kontzertuak eman dituzten urtarilaren 2an, 3an eta 4an Bilbon, Gasteizen eta Donostian, hurrenez hurren. Eta kontzertu horien protagonista bi hondarribiar izan dira.

Julen Zelaia eta Maria Rallo, 17 eta 16 urteko gure musikari gazteak, bakarlari modura aritu dira hiru kontzertu hauetan.

Zelaiak eta Rallok oso ibilbide bikaina izan dute azken urteetan eta musikaren munduan etorkizun oparoa dutela sobera erakutsi dute.

EGOrekin batera, oraingoan, Bilboko Euskaldunan, Gasteizko Printzipal antzokian eta Donostiko Victoria Eugenia, programa erakargarri zein zaila izan dute aurrean: Mozarten *Sinfonia Concertante*

obra konplikatua, Shostakovichen *Ganberako Sinfonia* eta euskal musika konposatziale baten obra, Fernando Velázquez getxotarrak *Lo imposible* pelikularako egin duen soinu bandaren zati bat.

Euskal Herriko Gazte Orkestrak berak eta Julen Zelaia eta Maria Rallok bakarlari modura, oso kritika onak jaso dituzte egun horietan komunikabideek egin dituzten kroniketan.

Zorionak biei hemendik eta ia laister Hondarribian entzuten ditugun!



ZEZENAK

Ondarrabia'ko zezenen berri emateko, aspaldiko denboretatik asi bear nai ta nai ez. Erriko berri zarrak ongien aztertu dituan Portu'tar Florentino'k dionez, 1474'garren rterako ba-ziran zezenak. Uztaillaren batean izaten ziran urteroko jaietan.

Zezen tokia, Arma Enparantza izaten zan eta ala jarraitu zuan 1892'garren urtean berria egin zan arte.

1639'garren urtean Ondarrabia'n zezenak izan zirala ba-dakigu, kondairak ala jasotzen bai-du. Kepa Deunaren egunean (au arrantzaleen Anaidiak jarrita), uztaillako erri jaietan eta Maria Madalena Deunaren egunean izaten ziran zezenak aldi artan. 1889'garen urteko erri jaietako zezenetan zezenkari bat il zuan zezenak: Florencio González «Perita», Logroño'koa.

Ondarrabia'k, udazaleak erriratzeko jolas geiago izatearren edo erria maillaz igo naian, zezen enparantza egin zan 1892'garren urtean. Uztaillaren 24'an eta 25'ean izan ziran zezenketak. Anjel Pastor eta Bonardillo izan ziran lenbiziko zezenketariak.

Zezen enparantzak 5.500'dik 6.000 lagunera barrenean artzen zituan. Enparantzaren jabe zan bazkunak 750 laurlekotan utzi zien lenbiziko zezenketa eratu zutenei.

Lenbiziko urteetan zezenketa onak eman ziran, baiña 1910'garren urtean Irun'en zezen enparantza egin zanetik aurrera, ezer gutxi. Denborarekin ia lur jota gelditu zan eta 1950'garrenean, lan aundiak egiñez, berri tu egin zuan, ortarako sortu zan bazkun berriak. Ta berritze ura ospatzeko, goi maillako zezenketa egin zan agorraren 7'an. Antonio Ordoñez, Manuel Vázquez eta A. Borrero «Chamaco» ziran zezenak iltzeko, baiña Ordoñez ezin etorri izan zan orgatilla aunditua zuala-ta, ta ordeze Julio Aparicio etorri zan.

Baiña asierako jai aundi ura gora-beera, gauzak leenera itzuli ziran. Beste motako jairen bat edo beste urtero egiten da, baita zezenketa parregarriren bat edo beste ere, baiña goi maillakorik ia batez.

Orratik, aurtan, 1974'garren urtean, itxurazkoak izan dirá. Uztaillaren 19'an, 20'an eta 21'an izan dirá. Ta gutxitan ikusten dan berri-tasuna izan dute: zera, emakume bat izan da zezen jaiko buru, erriko alkate dan emakumea, Iridoy ta Olaskoaga'ta Mertzedes.



-Oporrengatik itxita -Otsailean irekitzen dugu





Jesus Mari Mendizabal

Urte askoan kontatu izan zen, ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi, Turkiatik hasi eta Pakistanera bitarteko lur eremu zabaleko hiri, herrixka eta auzoetan, urte askoan kontatu izan zen, Budaren estatua izugarri handi bat bazela Afganistanen; Afganistango auskalo nongo bazterretan, harkaitz frankoren ingurumarian, hareararen azpian gordeta. Estatua hori ba omen zen hirurehun metro luze; etzanda omen zegoen, alde batera etzanda; eta, mendeetako bere loan, dagoeneko hareaz erabat estalita omen zeukaten noski basamortuko haizeek.

Arkeologo bat eta bi eta hiru baino gehixeago ere joanik izan behar zuten, nor isilka eta nor hots handiz, harrigarritzko estatua haren bila XX. mendean zehar. Denak ere alferrik, baina.

Esperientziak esperientzia, gehienetan eskarmentua auzoan, ordea, eta 2002an frantziarrez, ingelesez, pakistandarrez eta afganiarrez osatutako espedizio talde berri bat antolatu zen. Bero-beroan, elkarren animoan, bai gogotsu atera ere bazter galduetara, Budaren estatua izugarriaren bila. Afganistanen, ordea, orduan ere bazen gerra, zalaparta, nahaste-borrastea eta komeria... Hala eta guztiz ere, joan dira harro eta lehiatsu altxor bila. Bila eta bila, gora eta behera, atzera eta aurrera, «hator hona» eta «goazemak hemendik», azkenean kontua da espedizio-kideak galdu egin zirela, arrunt galdu, denak batera. Eta uztaileko bero erre galdatan galdu ere, ai ene bada-ta!

Egun asko baino lehen, konturatzerako,

gasolina egin zitzaizen erabat ahitu, janaria ia bukatu, edaria total agortu. Irratiak eta telefonoak, berriz, ezertarako ez zien han orduan balio; izan ere, eskualdeko jende guztia asaldatuta baitzebilan zoramenaren kaosean, eta, beraz bada, ezinezkoak ziren komunikazioak. Bero saparen pean, tipitapa oinez, noraezean, laborriak hartuta..., errukienak zeuden, errukienak zeudenez gizajoak; hasiera bateko haizeak eta lainezak majo otxanduta, alajainkoa.

Hala, lur jota, erabateko etsia hartzeko zorian zeudela, gau batean, auskalo non, putzu bat-edo topatu uste izan zuten; putzu tanke-rako zera bat. Linternetan argirik gabe, apenas ikusten zuten ezer garbirik. Denak kieto geratu ziren, geldi-geldi, zer suma... Batek, zulo beltzera arrastaka hurbilduta, harri koskor bat jaurti zuen ustezko putzu barrenera... Eta, alafedetan, uraren hotsa aditu zuten denek, benetan. Ura, alajaina!

Kemena eman zien horrek, eta suspertu ziren pittin bat gizajoak. Putzu-zuloaren ahotik adarrak eta traba zikinak kendu, soka bat ondoko harkaitz biribil bati lotu, eta lagunkoadrilako mutilik argalena abiatu zen zuloan behera, sokatik zintzilik, iluntasun erabatekoan.

Astiro, kontuz, bi edo hiru metro behera egin eta, beinke-beinke, ura aurkitu zuela, zera! Ura! Hango guztien zoramena! Beste soka mutur bati lotuta urontziak jaitsi, urontziak urez bete, urontziak gora igo, zurrut eta plit, zurrut eta plast..., bizia ekarri zion eta poxa, bizia eta poxa baldinbetan!, ur salbatzaile zorioneko hark espedizio abailduari.

Lo hartu zuten gero, pixka bat lasaiago. Goizean oso goiz, eguna argitzerako, ura berriro edan, azken janari hondarrak jan eta, biziberrituta, animoso abiatu ziren, pausu bizian, norabait, zerbaiten edo norabaiten bila, eguzkiak bazterrak berriz ere kiskali baino lehen... Eta hamaikak aldera, hortxe, harkaitz mordo baten magalean, hareazko ordeka baten ertzean, herrixka bat bistaratu zuten, zorionean, azkenik. Bertakoek onik jaso zituzten eta gizabidez artatu. Salbatuta zeuden, hortaz. Ozta-ozta eta larri, baina salbu, behintzat! Handik aurrerakoak, espedizio-kideetako bakoitzaren etxerako bueltak eta abarrak, hemen ez du zer kontaturik...

Jakin zuten mantsoagatik zer den eguzki galdatan egarriak itota ibiltzea; jakin zuten, bai, zer den noraezean galdurik alferrikeri aurrera egitea; jakin zuten, ondo jakin ere, zer den frakasoaren motza eta eskarmentuaren latza...

Baina, ai ene baina!, espedizio ustez frakasatu hartako kideek sekula santan ez zuten jakin ezkutuko putzuko ur salbatzaile hura benetan nongo zer zen. Budaren beraren belarri-zuloko ura zen eta! Bai, horixe! Izan ere, hareararen azpian urez beteta topatu zuten zulo-edo hura, estatua izugarriaren belarria zen! Egunetan amorratzen Budaren bila ibili eta gero, oharkabea, haretxen belarriko zuloatik edaten arituak ziren! Tira, ba... Kontua da, ez jakinean aurkitu zutela, eta alfer-alferrik, beren altxor amestua: hirurehun metroko estatua tzar famatua. Gizajo inozente halakoak! Ametsa lortu eta enteratu ez!





Koldo Ortega

“KONSTANTINO TXIKIA”REN HONDAMENDIA

Egunotan betetzen ari da “Constantino Chiquia” arrantza ontziaren hondamendia- ren lehendabiziko mendeurrena. Izan ere, 1913ko urtarrilaren 4ko gauean, Hondarri- biko barran arrantza baporea hondoratu zen eta, tamalez, eskifaiaiko hamalau lagunetatik hamabi hil ziren.

Nahiz eta ehun urte igaro ondoren, egun penagarri eta gogoangarri hark ahaztu ezin jarraitzen du hondarribiarren bihotzetan, ba- tez ere, hildakoen familietan.

Horrela, itsasoaren marrumak eta mareen ordainak argi islatzen dira itsasotik bizi di- ren familiengan. Urte horretan, 1913an, Gi- puzkoako arrantzaleentzako galdetegia egin zuten (“Hondarribiko historia” liburuan emana) eta, horren arabera, 280 lagunek jarduten zuten arrantzan. Gainera, 160 fami- lia arrantza industriatik bizi ziren, 12 familia arrantzari lotutako jardueraren batean arit- zen ziren eta 25 familia txaluparien lanetik bizi ziren. Beraz, guztira 197 fam ilia itsasoari esker bizitzen.

“Arrantzaleak:ur eta lur” lanari jarraituz, ur- teetan zehar, ugariak dira herriko arrantzale edota marinelak itsasoan hilak: korsoan, bi- daietan, gerretan, istripuetan, eta arrantzan. Urrun zein hurbil: Indietan, Ameriketan,

Ternuan...eta etxe aurrean, Hondarri- biko barran. Mila inguru dira azken 400 urteotan Hondarribiko semeak itsasoan hilak edo naufragoak. Haietako ehunen bat begi bistan, barran, etxetik hurbil.

HONDAMENDIAREN BERRIA

Egun haietako egunkari eta aldizkariak “Konstantino Txikia” arrantza baporearen hondoratzearen berri eman zuten luze, argazki gogorrekin batera. Horrela, “Mundo Gráfico” delakoak, gertatutakoaren berri eman zuen hon damenaren hurrengo egunean bertan. Hona hemen egokituriko laburpena: Ur- tarrilaren 4ko arratsean, larunbata, hiru arrantza bapore txiki, sardinez zamatu- rik, porturatu ziren Donostian. Arraina

utbiz gero, gauez itsasoratu ziren etxera iristeko. Itsasoaren egoera txarra ikus- tean, bapore bat Pasaiaiko kaian sartu zen eta beste biek Hondarri birantz jarraitu zuten. Denboralea zela eta, bapore bat itsasoan gelditu zen barra zeharkatu gabe baina “Konstantino Txikia”, barkuaren egoera egokiez fidatuz, barrara abiatu zen. Barra gainditzera koan itsasontzia ki laz gora gelditu zen eta, olatu bortitzek bultzatua, azkenean hondoratu egin zen. Hildakoak 12 lagun izan ziren eta bi biziri katera: Pedro Berrotaran patroia eta Bo- nifazio Virto sugina edo ikatz-botatzailea.

HONDARRIBIKO DIRU BATZORDEA

Meltxor Errazkin.....	Alkatea
Auspicio Otaegi.....	Apaiza
Nikasio Esuain.....	Zinegotzia
Rafael Urrutia.....	Zinegotzia
Hilario Laborda.....	Zinegotzia
Bernardo Sorondo.....	Zinegotzia
Maximo Laborda.....	Gipuzkoako diputatua



**ARRANTZALE GAXOA!...**

Negu beltz, illuna...ta arrantzale artean
Orain ezin bizia, gose aundi ta otza.
Errian danak ixil...surik ez sukaldean,
Ta ume gaxoengatik amak itun biotza!...
Itsasia txar dago, guztiz asarratua...
Ta arrantzale azkarra ogia irabaztera
Ontzi txiki batean, indarka, nekatur,
An dijoa itsasora, arraia arrapatzera,
Ortzean odei beltzak, non nai aize aundia...
Itsasoa borrokan ari da mendiekin,
Eta arrantzale onak orain galdu bizia!...
Etxean, ama bere umetxo kutunekin
Aita maitearen zai, jareko ogi zuria:
Aita betiko datza urpean arraiekin!!!

Madrileko "Blanco y Negro" komunikabi-deak ere, 1913ko urtarilaren 12an, hondamendiaren berri eman eta osatu zuen. Horri esker, bi datu berri ditugu: Barkua kilaz gora geratu baino lehen, itsas kolpe batek bi tripulatzaile itsasora bota zituen eta hurrengo egunean, igandea, hilotzak edo gorpuak hondartzan hasi ziren agertzen, bederatziak aldera.

**UDALA ETA HERRIAREN
ERANTZUNA**

Hondarribiko Udalak Errege Egunean bertan egin zuen bilera, Meltxor Errazkin alkateak zuzendua. Familiei doluminak agertuz gero, premiazko erabakiak hartu zituzten udalkideek. Lehendabizikoa, diru biltze "nazionala" egitea hildakoen familiei laguntzarren.

Dirua jaso eta banatzeko batzorde berezia antolatu zen. Bigarren erabakia, elizkizunak urtarilaren 14an egitea. Hirugarrena,



Higer gazteluaren beheko aldean bi proiektore handi jartzea patroiek hobeto ikusteko.

Laugarren eta azkena, Badian tresna salagarriak eta buiak jartzea. Honekin batera, Udalak barra zeharkatzeko beharrezko lanak egitea proposatu zuen.

Hondarribiko herriaren erantzuna azkar eta herrikoa izan zen. Biztanleak, bakoitza beren ahalbideen arabera, eskuzabalekoak izan ziren. Hondarribiko artxibategian parte hartu zuten guztien ekarpenak gordeta daude. Gipuzkoako udal gehienek dirua bidali zuten eta, horiekin batera erakunde ugariak ere.

NAUFRAGOAK ETA URTEAK	FAMILIAKOAK	AHAIDEGOA	ADINA
Nicolás Virto Etxeberria 29	Petra Agure Goikoetxea Marcela Virto Agure Camila " " Nicolás " "	Alarguntza Alaba " " Semea	29 urte 3 " 8 hil 8 "
Manuel Amunarriz Sorondo 31	Francisco Arribillaga Zoa Sorondo Marín Catalina Amunarriz Sorondo Bibiana " "	Aita Alarguntza Alaba " "	50 urte 31 urte 5 " 22 hil
Robustiano Alkain Errazkin 57	Luciano Alkain Enríquez Tomas " " Apolinar " "	Semea " " " "	28 urte 25 " 15 "
Marcelino Olaskoaga Camino 22	Jose Cruz Olaskoaga Lizarraga Sabina Arbelaz Lizarraga Martina Lekuona Arbelaz Rufina " " Victoria " " Bustaquio " " Marta " "	Aita Alarguntza Alaba " " " " Semea Alaba	44 " 38 " 14 " 11 " 9 " 4 " 4 "
António Lekuona Arbelaz 17	Sabina Arbelaz Lizarraga Vicente Tumaco Arranbide 42 Jose Maria Tumas Zuzaya 31	Ama Alarguntza Alarguntza Alaba	38 urte 38 urte 35 urte 7 "
Fernando Alza Amunarriz 48	Rufina Indoi Oronoz Guadalupe Tumas Indoi Antonia " "	Alarguntza Alaba " "	35 " 5 " 5 "
Asuncion Sagartzazu Sorondo 48	Generosa Arroyo Ezeiza Benigno Alza Indoi Remedios " " Ceferno Alza Arroyo Rosalba " " Nieves " "	Alarguntza Semea Alaba Semea Alaba " "	35 " 17 " 14 " 5 " 3 " 8 hil
Pedro Elduaren Olazabal 30	Rosario Ortiz Amunarriz León Sagartzazu Ortiz Gabriela " " Ramunda " " Resurrección " " Antonio " " Mª Asuncion " "	Alarguntza Alaba " " " " " " Semea Alaba	34 urte 17 " 14 " 10 " 8 " 14 hil " "
	Regina Aseginolaza Urtizberea Rufino Elduaren Aseginolaza Josefa " " Antonio " "	Alarguntza Semea Alaba Semea	26 urte 6 " 4 " 14 hil

Diru banaketaren zerrenda orokorra (Hondarribiko Artxiboa)

Bizkaia ere lagundu zuen, kostako herriak batez ere. Espainiatik ere dirua jaso egin zen, Gubernukideek, Errege familiak, Haundi-maundiek eta Madrilgo Udalak parte hartuz. Hegoamerikan ere dirua bildu zen, Euskal Etxeetan.

Azpirarratzekoa da Gipuzkoako mikelentzako ekarpena, Irungo eskola umeena eta, batez ere, Hondarribiko familia dirudunen zerbitzariena ere.


Diru Batzordeak jasotako diru kopurua hildakoen familiartekoei banatu zien 1913ko maiatzean eta urrian: 14 urte arteko seme-alabei 1348'90 bana pezeta eta alarguntsei, ezkongabekoen gurasoei eta 15 urtetik gorako seme-alabei 674'45 bana pezeta. Guztira 43.839'25 pezeta gehi 925'18 pezeta propaganda ordaintzeko.

Gaur den egunean ere, ehun urte ondoren, hildako arrantzaletan ondarrabiarrak gogoangarriak dira. Hori dela eta, denei, bihotzez eta omenez, Klaudio Sagartzazu "Satarka" olerkariaren "Arrantzaletan Gaxoa" sonetoa eskeintzen diegu. Hamalauko honetan, 1913ko negu beltz hotzean gertaturikoa primeran islatzen du Satarkak.



**Su Haietatik Ke Hauek - Gi-
puzkoa: Errausketatik Zero
Zaborrerantz**

Su haietatik ke hauek, Iñaki Petxarro-
man: «Nork esan behar zigun, herri
honetan gertatu diren guztiak gerta-
tuta, azkenean hondakinak izango zi-
rela herrialde honetako eztabaidagai
nagusia?». eajko bozeramaile baten hitz
horiek hiritar askoren buruan ibili dira
azkenaldian. ..

Maite Nauzu Oraindik?

Maite nauzu oraindik?, Catherine Le-
blanc, Eve Tharlet (IL.): Zer da mai-
tasuna, gauza ikusezin hori? Martin
kezkatuta dago: amak beti maiteko du?
Amak galdera guztiei erantzungo die,
eta Martin txikia lasaituko du: amaren
maitasuna ez da inoiz desagertuko.

Tximeletrak

Tximeletrak, Xabier Olaso:

Purrust-parrast
olatuak,
eta ni
surfari.

Purrust-parrast
karraska,
eta ni
arrainen bazka.

Eserleku Hutsa

Eserleku hutsa, J.K. Rowling: Barry
Fairweather berrogei urte bete berri-
tan hil da, eta Pagford herri txikia shock
batean bezala geratu da. Itxuraz, herri
patxadatsua da Pagford. Leku idiliko
bat. Galtzada harriko merkatu plaza
bat eta abadia zaharra. Baina patxada-
zko itxura horren atzean, gatazka larria
ezkututzen da....

Iratxoaren Txanoa

Iratxoaren txanoa, Brigitte Weninger,
John A. Rowe (IL.): Egun batez, iratxo
batek bere txanoa galdu du basoan, eta
animalia guztiek, handi nahiz txikiek,
beren etxea aurkitzen dute bertan;
guztiek, arkakuso ñimiñoak izan ezik,
inork ez baitu haren lagun izan nahi.
Gizenduz doan istorio honen umoreak
John Rowe-ren marrazki biziak ditu
edergarri.

Mussche

Mussche, Kirmen Uribe: Literaturarako
grinaz, bizipozez amodioan, Erresisten-
tzian borrokan, kuriaiaz presoaldian...
Robert Mussche idazlearen izaera
eskuzabalak zirrara sortzen du, baina
baita larritasuna ere. Kirmen Uribe-
ren bigarren nobela 1937ko maiatzean
abiatzen da, milaka haur Santurtziko
portutik erbestera atera dituztenean.



OLEARSOKO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25



INFORMAZIO OROKORRA

Etorri zaitez bulegoa ezagutzera eta kuxkuxeatu ikasketa, beka, lehiaketa, ekintza eta txartelei buruzko informazioa!

Jabier Ugarte, 6

edo bidali email bat gure helbidera
gib@hondarribia.net (galderekin, iradokizunekin, eskeintze-
kin...)

Astelehenetik ostiralera 16.30etik 20.00ak arte
Larunbatetan: 10.00etatik- 13.00etara

Informazio gehiago: gipuzkoangazte.info

BULETINA

Egin zaitez buletinaren harpideduna eta jaso Hondarribiko be-
rriak ostiralero!!

Gipuzkoangazte.info "TOKIAN TOKIKO" atalean



PRESTAKUNTZA INGURUNE DIGITALEAN

Irungo eta Hondarribiko udalek, Bidasoa biziriken bidez, urtarri-
laren 23tik aurrera, etengabeko ikaskuntzarako hainbat ikastaro
eskaintzen ditu, ingurune digitalarekin eta Internetekin zerikusia
dutenak.

Hona haietako batzuk:

- 2013/01/23 – 2013/06/14: IT TXARTELA EXCEL OINARRI-
ZKOA (On line): Tutoretza presentzialen ordutegia: azteazke-
netan 18:00etatik 19:00etara. Etengabeko prestakuntza ikasta-
roa, 45 online ordukoa, Internet erabiltzen duten eta EXCEL
programa erabiltzen ikasi nahi duten eta IT txartela ateratzeko
azterketa prestatu nahi dutenei zuzendua.

-2013/01/30 – 2013/06/14: IT TXARTELA WORD OINARRI-
ZKOA (On line):Tutoretza presentzialen ordutegia, azteazkene-
tan 18:00etatik 19:00etara Etengabeko Prestakuntza ikastaroa,
65 online ordukoa, Internet erabiltzen duten eta erabiltzaile-
mailan Word testu-prozesatzailea erabiltzen ikasi nahi dutenei
eta IT TXARTELA ateratzeko azterketa prestatu nahi duten
pertsonei zuzendua.

Ikastaroak Irungo eta Hondarribiko pertsoneri zuzentzen zaizkie
eta doakoak dira. Ikastaroak hauei eta beste batzuei buruzko
informazio gehiago lortzeko, El Espazio bulegora deitu (943-
633160) edo www.elespazio.com helbidea bisitatu ahal da.

ZEIN URTETAN BOTA ZUTEN HONDARRIBIKO ZEZEN PLAZA? ZER DAGO ORAIN HAN?



ARGAZKIA: GUREGIPUZKOA.NET

Hilabete honetan berriz ere argazki kontuetara bueltatuko gara gure lehiaketan. Lehenik eta behin, esan behar dugu abenduko alean eskutatuko Herriko Kontu Zaharrak ez ditugula jaso, bat bera ere ez. Beraz, **irabazlerik ez daukagu oraingoan.**

Goazen orain harira. Ale honetako 21. orrialdean Jose Mari Etxaburu *Kamiñazpiren Ondarrabiako Kondaira* liburuko beste zatitxo bat erreskatatu dugu, gure hirian zezenek eta zezenketek izandako historiaren ingurukoa. Horren ildotik dakargu hilabete honetako gure lehiaketaren galdera.

Jakin, denok edo ia denok dakigu Hondarribian zezen plaza izan zela. Hauxe galdera: **Zein urtetan bota zuten zezen plaza? Zer egin zen eta zer dago orain hura zegoen lekuan?**

Animatu idaztera eta Beko Errotan bi lagunentzako afari edo bazkaria irabazteko aukera izango duzue!

Bidali erantzunak Udal Euskara Zerbitzura posta bidez, zuen izen-abizenak, helbidea eta telefonoarekin batera. Helbidea, Panpinot kalea 14-16 da. Gogoan hartu erantzunak jasotzeko azken eguna otsailaren 12a izango dugula.

Erretegia

bizandar
Sotabizkeria eta Meluzia

Brasan egindako arrain eta haragietan espezializatua

Santiago Kalea, 47 Antzuola, Hondarribia. Tf. 943 537 336

PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN ESPEZIALIZATUA

Bar Ignacio

SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 643 557

ARGAZKI EDER HONEKIN APAINDU DU BERE SAKELEKO EGUTEGIA UDAL EUSKARA ZERBITZUAK



Hilabete honetan, gure ganbara propiotik atera dugu argazkia, edo ia. Bertan, ezkerretik eskubira, Frantzisko Etxeburu, Angel Amu-narriz *Ttapikua* eta Periko Goñi *Nabarro* ageri zaizkigu. Andres Etxeburu eta Ondarribi Inprimategiari esker lortutako irudi eder honekin apaindu du Hondarribiko Udal Euskara Zerbitzuak bere sakeleko egutegia, herriko zein udaletxeko zerbitzu desberdinen telefonoak eta eraman ohi dituen hura. Eskura duzue Udaletxean!

Bidali mesedez zuen argazki zahar horiek Udal Euskara Zerbitzura (Pampinot Kalea, 14-16) edo posta elektronikoz, info@zifco-muninacion.com helbidera.

OHARRA ABENDUKO ARGAZKIAREN INGURUAN: Orduko argazkian San Joseren paperean ageri den Peio Gartzia-k argitu digu irudia ez dela 1969. urtekoa, guk artxibotik hartutako datuaren arabera, baizik eta 1967. urtekoa.



Anaka kalea, 11
943.61.54.57



TABISA
BIDASOAKO BEILATOKIA



San Pedro kalea, 49
943.64.54.57

ETA LASAITASUNEAN... BETIKO INGURU GOXOAN

Jaiotzak abenduan

1ean: ELENE Goikoetxea Busto, Hondarribiko Roman eta Hondarribiko Anaren alaba.

3an: LAIA Portugal Escudero, Hondarribiko Francisco eta Irungo Rebecaren alaba.

7an: UNAX Obeso Ruiz, Hondarribiko Ander eta Barakaldoko Martaren semea.

17an: INES Atxukarro Martinez, Hondarribiko Igor eta Hondarribiko Marcelaren alaba.

20an: OLIVIA Vedoya Fernandez de Barrena, Buenos Aireseko Javier eta Irungo Liberen alaba.

21ean: ISAAC Ares Ramos, Mocambique-ko (Portugal) Joao Claudio eta Florianopolis-ko (Brasil) Grasielaren semea.

21ean: MATIAS Ares Ramos, Mocambique-ko (Portugal) Joao Claudio eta Florianopolis-ko (Brasil) Grasielaren semea.

24an: ALEJANDRA Gomez Tello, Irungo Alberto eta Donostiako Maiteren alaba.

27an: SARA Etxeberria Tovar, Irungo Mikel eta Santurtzi-ko (Bizkaia) Maria Jaizkibelen alaba.

**Ezkontzak abenduan**

Hil honetan ez da ezkontzarik izan

**Heriotzak abenduan**

3an: MANUELA Ansa Intziarte, Oiartzungoa, 89 urte, Betarrango egoitzan.

8an: JOSE ANTONIO Ochoa Lopez de Alda, Falces-ekoa (Nafarroa), 59 urte, Donostian.

17an: GREGORIO Berrotaran Etxeberria, Hondarribikoa, 67 urte, Gornutz (Montaña)-ko Artzu baserrian.

18an: AGUSTINA Dominguez Bellanco, San Martin de Trevejo-koa (Caceres), 80 urte, Zubieta kalean.

18an: PEDRO Perez Aramendi, Hondarribikoa, 68 urte, Irunen.

19an: IGNACIO Gonzalez Egoskozabal, Hondarribikoa, 77 urte, Irunen.

22an: EDUVIGIO Tife Atseginolatza, Hondarribikoa, 86 urte, Puntale auzoan.

23an: OLIVA Saiz Sanllorente, Montorio-koa (Burgos), 83 urte, Arrantzale auzoan.

27an: JAVIER Altzugarai Lizaratzu, Hondarribikoa, 76 urte, Irunen.

27an: RAIMUNDO Olaskoaga Lapitz, Hondarribikoa, 83 urte, Irunen.

28an: JAVIER Alberdi Martiarena, Irungoa, 78 urte, San Pedro kalean.

30ean: FRANCISCO Lizarraga Peña, Hondarribikoa, 77 urte, Jaizubiako Loibiaga baserrian.

31an: JUANA Erkizia Beloki, Donostiakoa, 62 urte, Higerko itsasargi bidean.



joski
Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Maklin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 4846 - 20280 HONDARRIBIA

endanea garden

Larriakun gazatzeke

Astelehen eta bi egunetan: 9:00 - 14:00 // Asteartetik larunbateraino: 9:00 - 20:00
Lizubia, 40 - 20260 - HONDARRIBIA - 943 64 17 10 - WWW.ENDANEA.COM



Fermin Olaskoaga

Herriko bizilagunen gora-beherak abenduan

Altak Jaiotzak: 9, eta kanpotik etorriak:53
Bajak Hildakoak: 13, eta herritik joanak:42
Biztanle kopuru orokorra:16.859 bizilagun.

Abenduko eguraldiaren datuak

Temperaturarik gorena:.....23,1° C, hilaren 24an.
Temperaturarik beherena:.....-1,4° C, hilaren 12an.
Bataz besteko temperatura:.....10,7° C.
Bataz besteko hezetasuna:.....% 72.
Euri-litroen kopurua:.....194,1 mm.
Egunik euritsuena:.....hilaren 5ean 44,2 mm.
Euri indartsuenen uea:.....hilaren 5eko 5,40tan 22,2 mm/orduko.
Egun euritsuak:.....22 egun.
Elur egunak:.....0 egun.
Kazkabar egunak:.....0 egun.
Ekaitz egunak:.....egun 1.
Behe-lainoko egunak:.....2 egun.
Ihantz egunak:.....7 egun.
Zeru oskarbia:.....3 egun.
Zeru lainotua:.....18 egun.
Zeru estalia:.....10 egun.
Eguzki kopurua:.....81,0 ordu.
Bataz besteko presioa:.....1018,3 milibar.
Presiorik gorena:.....1032,6 milibar, hilaren 27an.
Presiorik beherena:.....997,3 milibar, hilaren 14an.
Haizea >55 Km/ord.....5 egun.
Haizerik indartsuena:.....hilaren 21eko 13,00tan 104 Km/orduko.

2012. URTE GUZTIKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik gorena:.....37,5° C, abuztuaren 17an.
Temperaturarik beherena:.....-5,4° C, otsailaren 12an.
Bataz besteko temperatura:.....14,8° C.
Bataz besteko hezetasuna:.....% 72.
Euri-litroen kopurua:.....1569,8 litro.
Egunik euritsuena:.....urriaren 20an 0,615 litro.
Euri indartsuenen uea:.....azaroaren 9ko 22,31tan, 0,354 litro/orduko.
Egun euritsuak:.....18egun.
Elur egunak:.....4 egun.
Kazkabar egunak:.....3 egun.
Ekaitz egunak:.....18 egun.
Behe-laino egunak:.....11 egun.
Ihantz egunak:.....96 egun.
Zeru oskarbi:.....39 egun.
Zeru lainotua:.....202 egun.
Zeru estalia:.....125 egun.
Eguzki kopurua:.....1913,4 ordu.
Bataz besteko presioa:.....1017,9 milibar.
Presiorik gorena:.....1037,5 milibar, otsailaren 3an.
Presiorik beherena:.....993,2 milibar, azaroaren 1ean.
Haizea >55 Km/ord.....37 egun.
Haizerik indartsuena:.....abenduan 21eko 13,00tan, 104 Km/orduko.

Abenduko liburutegiko datuak

Bazkide berriak:

- 15 gizon eta 28 emakume.
- Horietatik 20 heldu, 23 haur.
- Guztira 43.

Ekarri diren liburu berriak:

- 28 euskaraz, 108 gaztelaniaz eta 21 bestelakoak.
- Guztira: 157 liburu.

Mailegatutako liburuak:

- 414 euskaraz, 1499 gaztelaniaz eta 82 bestelakoak.
- Guztira: 1995 liburu.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

- Euskeraz: SLEGGERS, L.- Txomin.- Ibaizabal
- Gaztelaraz: LLOBET COLOMÉ, R.- Érase una vez el cuerpo.- Multilibro

Helduak:

- Euskeraz: CANO, H.- Twist.- Susa
- Gaztelaniaz: JAMES, E.L.- Cincuenta sombras de Grey.- Grijalbo.

Arrantzele kofradian abenduan saldutako arrantza kopurua

Alga gorria (Rhodophyta): 34.500,00 kilo.
Txangurrua (Cancer pagurus): 499,00 kilo.





Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBIARRREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrotta.com

Euskadiko Kirol Portuak

Beamea
Donostia-San Sebastián
Getaria
Hondarribia
Orno

BAR - RESTAURANTE

San Pedro, 33
20280 HONDARRIBIA

Tel.: 943 64 27 71
943 64 10 19

Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33
20280 HONDARRIBIA

Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan, gastronomi espezialitate onekin

HK hondarribia
klinika

PODOLOGIA
Dra. Nora Maiz
943 50 60 41

ODONTOLOGIA
Dr. Ernesto Toledo
Dra. Mariela Maiz
943 50 60 40

Berruti Pizcuare kalera, 10.000
20280 Hondarribia

**ESPERIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN KLINIKA.
ESPEZIALITATE GUZTIAK.**

MEDIO AMBIENTE, S.A.

Herri garbi batengatik lan egiten, ingurumenarekin elkarlanean

Zubiondo Poligonoa, 5A partzela, 20120 HERNANI. Tel. 943336901